

FUNTSEZKO JARDUERAK



Astero, astelehenetik larunbatera, ostegunetan izan ezik, jarduera batzuk landuko ditugu adin nagusiko pertsonekin. Komunikazioa landuz eta beraien harremanak sendotuz, giro hobea bat lortzen saiatuko gara gure jakituriaz baliatuz.

Jarduera hauek egin ahal izateko herriko hainbat txoko beteko ditugu egun desberdinetan. Adibidez, gure jardueretako batzuk egiteko eguraldia ona bada, parkera edo hondartzara joango gara. Bestalde, lokal bat gara eguraldia eskasa bada, mugimendu asko eskatzen ez duten jarduerak egiteko.

Hondartzan eta parkean, partaideen psikomotrizitatea landuko dugu, mugimendu espontaneoagoak eta arinagoak izan ditzaten proiektu honen amaieran. “Gezur etxean”, psikologiarekin eta harremanekin zerikusia duten jarduerak egingo ditugu, beraien pentsatzeko era ezagutzeko, eta ahal den neurrian, harreman interpersonalak hobetzeko. Bestalde, informatika saioak ere izango ditugunez, Ondarroa BHIko informatika gelak erabiliko ditugu gure partaideek informatika landu ahal izateko.

Gure jarduera berezietan parte hartuko duten pertsonekin izango ditugun harremanak bereziak izango dira. Alde batetik, familia giro bat sortzen saiatuko gara beraien ahalik eta eroso sentitzeko. Halere, psikologia arloan seriotasun puntu batekin jokatu dugu harremanak benetan hobetu ahal izateko.

Gure zerbitzuaren funtsezko jarduerak honako hauek dira:

ORDUTEGIA	ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	BARIKUA	ZAPATUA
11.00-13.30	INFORMATIKA	KANPO JARDUERAK	MEMORIA	ANTZERKIA	KULTURA

Astelehenetan, informatika saioak izango ditugu eta gure ezagutzak partekatuko ditugu. Azken urte hauetan teknologia indar handia hartu du, eta jende gaztea izan da hau erabiltzen ikasi duena, gainerakoak teknologia ez dutenez ulertzen ez dute beraien egunerokotasunean aplikatzen. Hori aprobetxatuz, adin nagusiko pertsonen sarearen arriskuak, alde onak eta hau nola erabili erakutsi nahi diegu, beraien egunerokotasuna errazteko eta bizitza erosoago egiteko. Gure helburua beraz, ordenagailuak eta beste gailu elektroniko batzuk erabiliz lortuko dugu; mugikorrak, tabletak eta aplikazioak, besteak beste. Ordenagailuei erreparatuz, partaideak ordenagailuen funtzionamendua ezagutuko dute; hasteko basikoa ikasiko dutelarik (ordenagailuan nola idatzi, internet nola erabili, *word* aplikazioa eta antzerakoak nola erabili).

Martitzenetan, kanpo jarduerak landuko ditugu psikomotrizitatea eta gorputzeko mugimendu basikoak lantzeko. Dakigunez, urteekin mugimenduak burutzeko ahalmena gutxitzen joaten da, horregatik adin nagusiko pertsona hauei hainbat ekintza erraztasunez burutzea zaila egiten zaie. Psikomotrizitatea lantzeko jardueretako bat “Futbol geldoa” deitzen den futbol mota izango da. Gure bezeroek erreflexu geldoak dituztela kontuan izanik, erritmoa ezin da arina izan; hortaz, jarduera berezi hau asmatu dugu denek jokatu al izateko. Beste jarduera bat “zumba” egitea izango litzateke.

Eguaztenetan, memoria landuko dugu; horretarako, jolas berezi batzuk egingo ditugu (sudokuak, gurutzegramak, letra sopak, etab.), material berezia erabiliz eta ahozko probak eginez. Proba hauetan, partaideak beraien memoria landuko dute hitz jokoak eginez; joko honek honetan datza: hitz kopuru bat memorizatuko dute partaideren batek hitz bat gaizki esan arte. Horretarako, partaide guztiak zirkulu handi baten jarriko dira eta aipatutako jarduerak landuko dituzte.

Barikuetan, antzerki tailerrak egingo ditugu eta honekin zera lortu nahi dugu: partaideen arteko komunikazioa hobetzea beraien erlazioak sendotzeko. Hilean behin, landutakoa familien aurrean aurkeztuko dute benetako antzerki bat izango balitz bezala, horrela, lotsa galtzea lortuko dute eta konfiantza hartuko dute beraien buruengan. Antzezlanak egiteko, material berezia erabiliko dugu, adibidez: jantzi bereziak, eszenatokiko dekorazioa (kartulinak, girlandak...)

Zapatuetan, kultura tailerrak egingo ditugu; asteko tailer honetan, gure partaideek euskal kultura hobeto eta sakonago ezagutuko dute; horretarako, Euskal Herriko postre eta plater tradizionalak prestatuko ditugu. Horretaz aparte, tokiak ezagutzera joango gara. Tokietara mugitzeko autobusaz baliatuko gara. Bestalde, sukaldaritzako materialak aurreko egunean erosiko ditugu eta dena prest utziko dugu lokaleko sukaldean.